

G. K. CHESTERTON.—*Hiltzaile moderatua*. Itzulpena: Hirune Uria - J. M. Zabaleta. Hordago Publikapenak. Donostia, 1984.

Chesterton polizi eleberrigile inglesaren *Hiltzaile moderatua* deritzan hau *Negozio arraroetako Kluba* deritzanaren barruan datorren eleberria da. Ez sozialismorako eta ez kapitalismorako ez zen pertsonaia isuritzen du bertan. Protagonista politika gizona da, noizbeinka norbait hiltzea komentatzen, bere lo gozozko handitasuna gelditu ez dadin.

Egile horren polizi eleberririk beti dira interesgarriak, edo beinik-pein irakurgarriak. Euskarara itzultzea, zer esanik ere ez on dela gure literaturgintzarako, batez ere hain euskera gozo eta errazean ematen denean.

J. S. M.